



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKAKO SAILA
Kultura Sailburuordetza
Kultura Sustatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y
POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Viceconsejería de Cultura
Dirección de Promoción de la Cultura

Euskadiko Dinamizazio Kulturalaren Eguneratze eta Garapen lanak(19/20) egiteko kontratuaren oinarri teknikoen orria.

1.- Kontratuaren xedea

Kontratuaren xedea Kultura Sailburuordetzari - Kultura Sustatzeko Zuzendaritza - laguntza teknikoa ematea da Euskadiko dinamizazio kulturala eguneratzeko eta gauzatzeko lanetan.

2.- Gauzatu beharreko prestazioak

Esleipendunak ondorengo zeregin hauek gauzatu beharko ditu, Kultura Sustatzeko zuzendaritzaren aginduz, honako arlo hauetan:

1. Euskal Kultur Kontseiluaren, Erakundearteko Batzordearen eta komisio berezien bilerek funtzionamendu egokia izateko tresnak eman behar ditu:
 - 1.1 Bilerak kudeatzeko beharrezko azpiegitura lortzea.
 - 1.2 Metodologia eta lan dinamikak landu eta proposatu; bilerak dinamizatu.
 - 1.3 Dinamizazio kulturala definituko dituzten proiektuen bileretako erabakiak eta akordioak hartu.
 - 1.4 Komisio bakoitzeko, sei hilabeterik behin, ebaluazio txostenak prestatu, batzorde bakoitzaren egoerari, aukeren eta lan ildoetarako buruz orientabideak eman.

Hurrengo bilera kopurua kalkulatzeko da:

- Zeharkako komisio bereziak: Zeharkako lanetako komisio 1.
- Sektoreetako komisio bereziak: Sektoreetako 3 lan komisio berezi, Arte eszenikoetako, Literatura-liburu eta ikus-entzunezko sektoreetan.
15 lan-bilera estimatzen dira urtero.
- Kulturaren Euskal Kontseilua (2 bilera urtean)
- Kulturaren Erakundearteko Komisia -Hakoba Kultura- (4 bilera urtean).



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKAKO SAILA
Kultura Sailburuordetza
Kultura Sustatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y
POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Viceconsejería de Cultura
Dirección de Promoción de la Cultura

2. Euskadiko dinamizazio kulturalerako proiektuak eta horien garapen errazteko informazioa kudeatzea:

- 2.1. Euskadiko dinamizazio kulturalerako proiektuak definitu eta landu, aipatutako bileretan baldintzak hartu eta gero.
- 2.2. Euskadiko dinamizazio kulturalerako proiektuen jarraipena egitea.
- 2.3. Funtzionamendurako, kalitaterako eta hobekuntzarako irizpideak proposatzea.
- 2.4. Erakundeetako arduradunekin aldizkako bilerak izatea, proiektuen jarraipena egiteko eta bilerak prestatzeko. Gehienez, urteko, 20 bilera kalkulatzen dira.

Euskadiko dinamizazio kulturalerako proiektuak Kulturaren Euskal Kontseiluan eta Erakundearteko Batzordean (HAKOBA kultura) sortzen dira. Hurrengo proiektuak garatzen ari dira orain:

- Irakurketa sustatzeko Plana.
- Emakumeek kulturaren duten presentzia eta parte-hartzea: -Beste sektoreak.
- Kulturaren presentzia komunikabideetan.
- Genero politikak EAEko Museo eta Arte Zentroetan.
- Sortzaileen lan-duintasuna.
- EAEko sorkuntzarako guneen mapa eta kartografia.

3. Euskadiko dinamizazio kulturalerako proiektuetak ebaluatu eta aldaketak proposatu horietan genero ikuspegia sartzeko.

4. Proiektuen dokumentazioa kudeatu plataforma birtualean (Sharepoint). Sare birtualeko lan plataforma horren bidez, honako zereginak egingo dira:

- 4.1. Kultura Auzolanean esparruan dauden proiektu guztien definizioa eta edukia zabaltzea.
- 4.2. Proiektuen jarraipena: Kultura Auzolanean proiektuetako bakoitzean sortutako materiala kudeatuko da, esleipendunak egindakoak edo beste batek egindakoak izan arren.
- 4.3. Erabiltzaileekin hartueman. Jasotako kontsulten, eskaeren eta gertakarien kudeaketa.

5. Gizartearen aurrean erakunde eta sektoreen arteko auzolanaren irudia zabaltzea.



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKAKO SAILA
Kultura Sailburuordetza
Kultura Sustatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y
POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Viceconsejería de Cultura
Dirección de Promoción de la Cultura

- 5.1. Euskadiko dinamizazio kulturalerako proiektuak zabaltzeko zereginetan laguntza ematea.
 - 5.2. Kulturklik Kulturaren Atari Interaktiboarekin eta Kulturaren Euskal Behatokiarekin koordinatu.
6. Helburuen betetzea eta lortutako emaitzak ebaluatzea.
- 6.1. Ebaluazio txostena prestatu (prozesuaren edukiarena eta kudeaketa ekonomikoarena) kontratua formalizatu eta 6 hilabetera eta kontratua amaitu aurretik.

Kulturaren Euskal Kontseiluaren eta Euskadiko kultura dinamiazazioari buruzko informazioa honako hau aurki daiteke:

<http://www.euskadi.eus/kulturaren-euskal-kontseilua/web01-a2kulsus/eu/>

<http://www.euskadi.eus/kultura-auzolanean-kultura-sustatu/web01-a2kultur/eu/>

3.- Zerbitzuak gauzatzea.

Kontratua formalizatzen denean, esleipendunak koordinatzaile bat izendatu beharko du administrazioaren kontaktua izateko.

Halaber, esleipendunak honako baldintza hauek bete behar ditu:

- Kontratuaren prestazioak elebidun egin behar dira (euskara eta gaztelania).
- Otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen 4/2005 Legearen xedapen guztiak betetzea, baita ondorengo aldaketak edo garapenak ere.

4.- Lantokia

1.- Kontratututako xederako egin beharreko zeregin guztiak enpresa esleipendunak edo enpresa esleipendunek horretarako aurreikusitako lokaletan gauzatuko dira, eta ez dira inolaz ere erabiliko Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren lokalak.



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKAKO SAILA
Kultura Saiburuordetza
Kultura Sustatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y
POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Viceconsejería de Cultura
Dirección de Promoción de la Cultura

2.- Aurreko puntuan adierazitakoa gorabehera, berariazko kanpo-lana (elkarrizketa sakonak eta abar) ere egin ahal izango da kultura-eragileen eta adituen lanlekuetan.

5.- Mendekotasun funtzionala eta organikoa

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak ez du inolako loturarik langile horiekin (ez lan-harremanik, ez kontraturik, ez harreman funtzionalik, ez bestelako loturarik), ez kontratua indarrean dagoen bitartean, ez amaitu ondoren.

Horrenbestez, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, ez dute inolako erantzukizunik izango hirugarrenei eragindako kalteengatik, enpresa esleipendunaren legezko ordezkarien, enpresako kolaboratzaileen edo zerbitzu ematen diotenen ekintzen edo omisioen ondorioz.

6.- Lanen jarraipena

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari eta enpresa esleipendunari dagokie pertsonala izendatzea, lanen jarraipen egokia bideratzeko. Izendapen horiek egiteko prozedura eta egutegia zehaztu behar dira, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren eskakizunen arabera.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzatik, zeregin bakoitzaren eraginkortasuna, eraginkortasuna eta kalitatea kontrolatzeko prozesua burutuko da, fase bakoitzean helburu eta kalitate irizpideak betetzen direla ziurtatzeko proiektua.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzaren 27a.

Aitor Pérez Salterain
Kultura Sustatzeko Zuzendartzaren teknikaria